UPV/EHUn SORTUTAKO HONDAKIN KIMIKOAK

HONDAKIN KIMIKOAK ONTZIRATZEKO JARDUNBIDE EGOKIAK

- ✓ **Ontzi egokiak erabiltzea**:

  → Aho estua hondakin likidoetarako (txanbilak)

  → Aho zabala hondakin solidoetarako (bidoi urdinak)

- ✓ **Etiketatu** ontziak betetzen hasi aurretik, dagokion erabilera eta ADR etiketarekin. Etiketaren eremuak bete.

  Ontzi bat erabiltzen den lehen aldian, biltegiratzen den hondakinari dagokion etiketa jarri beharko da, lehen ontziratzearen data adierazita.

- ✓ Garrantzi handikoa da **ontziak ondo ixtea**. Likidoetarako txanbilen kasuan, tapoia zigilatzen duten plastikozko **zirrindolak kendu** beharko dira, eta, solidoetarako bidoien kasuan, ondo finkatu beharko da goma eta balezta sistema.

- ✓ Hondakin likidoetarako **txanbilak betetzean**, ez da **INOIZ** gainditukо ontzietan adierazitako muga muga (segurtasun edukiera erabilgarria, marra horizontal batekin adierazia); hau da, ontzia ez da inoiz edukieraren % 80tik gora beteko.

GAIZKI

ONDO

- ✓ SOILIK **berrerabili ontzi hutsak** bateragarritasun kimikoko eta homologazioko bermeak daudenean.

  Hutsik dauden ontziak berrerabiliz gero, aldatu etiketa erabili aurretik. Substantzia jakin batzuetarako, ahal bada, jatorrizko ontziak berrerabiltzea gomendatzen da, zehazki Disolbatzaile organikoak.